



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 15a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eragile sozioekonomikoekin plan urgente bat taxutu eta adostu dezan, enpresetan kontziliaziorako malgutasun-neurriak ezartzeko. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako eta hango eskualdeko osasun barrutian anbulantzia berezitu bat para dezan COVID-19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroan egoera ekonomiko ahulean bizi diren pertsonen berma diezaion foru erkidegoan behar adina maskara izanen dutela. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigi diezaion AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentzia 2020rako eta 2021erako baimentzen dion gehieneko defizit-mugara iritsi ahal izatea. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garapen digitaleko estrategia bat defini dezan. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere ekarpena berrikus dezan haur eskolen jabe diren udalekiko lankidetzaren hitzarmenetan. Mozioa erretiratzea (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, militarrek kontaktuen miaketa-lana egiteko eskariari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eragile sozioekonomikoekin plan urgente bat taxutu eta adostu dezan, enpresetan kontziliaziorako malgutasun-neurriak ezartzeko.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eragile sozioekonomikoekin plan urgente bat taxutu eta adostu dezan, enpresetan kontziliaziorako malgutasun-neurriak ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren ondorioz, ziurgabetasun askorekin, ziurtasun gutxiarekin eta egonkortasun eskasarekin hasi dugu ikasturtea, eta horrek, zalantzarik gabe, eragina izanen du zaintzen antolamenduan eta kezka handia sortzen ari da familiengan.

Une honetan, familiengan eragin zuzena izanen duten arazoaren artean daude berragerpenak, hartu behar ditugun prebentzio-neurriak, neska-mutikoentzako eskolaz kanpoko jarduerarik eza,

krisi sanitario honetara egokitzeko antolaketa berriak eta espazio komunak erabileraren aldaketak, eta horrek guztiak zeharo zailtzen du pandemiaren aurretik pertsonak ezarriak zituzten kontziliazio-aukerak, mendekotasuna duten pertsonak nahiz beren kargura dauzkaten haurrak zaindu ahal izateko.

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezartzen du administrazio publikoek lan erreproduktiboaren erantzunkidetasun soziala bultzatuko duten politika aktiboak garatuko dituztela.

Legearen 48. artikulua orobat jasotzen du administrazio publikoek aldaketa prozesuak sustatu beharra dutela antolaketaren eremuan, bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko.

Bizi dugun egoera eta legean jasotakoa kontuan hartuta, beharrezkoa eta urgentea da administrazio publikoek egungo beharrezko erantzuteko berariazko neurriak hartzea, kontziliazioa bultzatu eta erraztu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

- Eragile sozioekonomikoekin plan urgente bat taxutu eta adostu dezan enpresetan malgutasun-neurriak ezartzeko, halako moduan non gurasoek lana eta zaintza bateragarri egin ahal izanen baituzte krisi sanitario honetan.

- Toki eta gizarte entitateentzako finantzaketa-formulak taxutu ditzan, hezkuntza ez-formaleko erkidego-programak ezartzeko eta aisia-jarduerak eskaintzeko, segurtasun sanitarioko neurriak beteta, ikasturtean zehar kontziliazioa errazteko xedez.

- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, ordezkari politiko eta sindikalek, mugimendu feministaren ordezkariak, emakumeen elkarteak, zaintza-sareak eta arreta prebentiboko zerbitzuek parte hartuko duten mahai bat era dezan al bait lasterren, berariazko arazoak identifikatzeko xedez, pandemia hau eragiten ari den eta eraginen dituen zaintzei ekin ahal izateko.

- 12 urtetik beherakoak, adinekoak edo/eta mendetasun- edo desgaitasun-egoeran daudenak

zaintzeko laguntza ekonomikoko programa bat sor dezan, errentaren arabera, baldin eta egiazta-tzen bada ezin dela beste bateratze-neurririk hartu. Nafarroako Gobernuak ahalik eta lasterren arautuko ditu eskaerak egiteko eta ebazteko baldintzak, errenta-tarteak, zenbatekoa eta prozedura.

Iruñean, 2020ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako eta hango eskualdeko osasun barrutian anbulantzia berezitu bat para dezan COVID-19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Tuterako eta hango eskualdeko osasun barrutian anbulantzia berezitu bat para dezan COVID-19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Erriberako eta Zangoza nahiz Izabako eskualdeetako osasun-garraioaren egoera prekarioak bere horretan dirau. Bere horretan dirau zerbitzu horren enpresa adjudikazio-hartzailea eskualde horietako pazienteei eskaintzen ari zaien kudea-

keta negargarria. Halere, Servicios Sanitarios Generales SSG enpresak bidegabeki aberasten jarraitzen du 2018ko abenduaz geroztik, kontratua orduan bukatu baitzen. Enpresa batzordearen lan nekagaitzari esker lortu da oraingo departamentuak eta iritzi publikoak jakitea pazienteak eta langileak pairatzen ari diren axolagabekeriak.

2019ko azaroaren 20an, Osasun Departamentuak iragarri zuen auditoria bat eginen zuela berehala, "zerbitzua berrantolatze" eta egoera irregular horri amaiera emateko, bai eta "herritarrei kalitatezko zerbitzu seguru bat eman dakien baldintzak betetzen direla gehiago kontrolatzea bermatzeko".

Bestalde, ez dakigu zer lan egin duen eta zer ondorio atera dituen departamentuen arteko batzorde teknikoak, zeina, hala uste genuen, sektorea arautzen duen foru dekretua gaurkotzeko, kontratu berrian hobekuntzak sartzeko eta zerbitzuaren kudeaketa berriz ere publiko bihurtzearen bideragarritasuna aztertzeke jarri baitzen abian.

Badakigu Osasunbidearen zuzendaritzak SSG enpresa behin baino gehiagotan premiatu duela indarrean dagoen konpromisoan jasotako baldintzak bete ditzan, harik eta esleipen berria egin arte.

Aurreikusteko modukoa eta agerikoa zen egoerak okerrera eginen zuela COVID-19ak herritarren osasunean izandako ondorioen eraginez, zeinak bere gordinen erakutsi baitigu zein garrantzitsua den osasun-garraioa kate asisten-

tzialean. Laburbilduz: jada eskasa zen kudeaketak okerrera egin du.

Gaur den egunean, enpresak ez dauka COVID-19a ustez daukaten gaixoak edo positibo baieztatuak direnak garraiatzen zituen anbulantzia; oinarritzko bizi-euskarriko beste bi ibilgailuetan garraiatzen dira horiek, eta, halatan, handitu egiten dira itxaronaldia abisuetan eta kutsatzeko arriskua. Maiatzaren 31n kendu zen –Iruñean, aldiz, ez–, eta Erriberan berragerpen kasu ugari egon den arren, oraindik ez da abian jarri. Orobat salatzen dute langileek ez dutela jaso pandemiaren egunik makurren etan lan egindako aparteko orduengatik ordainsaria.

Osasun Departamentuaren ardura da herritarrek, non bizi diren ere, kalitatezko osasun-laguntza jaso dezaten; bereziki, osasun-garraioa erabili behar dutenek.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen du anbulantzia berezitu bat para dezan Tuterako eta eskualdeko osasun barrutian COVID-19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat.

2. Nafarroako Parlamentuak departamentua premiatzen du al bait lasterren ezar ditzan Eriberan osasun-garraio zerbitzu optimoa bermatzeko ezarri beharreko prozedurak, gainerako kate asistentzialaren araberakoa, osasun-laguntza segurua emanen duena eta lan-baldintza duinak bermatzeko dituenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen du osasun-garraioa berriz ere publikoa izateko ezarri beharreko prozedura ezar dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Eleduna: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroan egoera ekonomiko ahulean bizi diren pertsonen berma diezaien foru erkidegoan behar adina maskara izanen dutela.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Nafarroan egoera ekonomiko ahulean bizi diren pertsonen berma diezaien foru erkidegoan behar adina maskara izanen dutela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, irailaren 17ko Osoko Bilkuran 10-19/MOC-00100 mozioaren ordean honako hau eztabaidatu eta bozka dadin eskatzen du:

Pandemia honek dakartzan arriskuak bat da aurreko krisiak gehien kolpatutako sektoreen aldera lerratzea infekzioa. “Inor ere ez atzean gelditzea” goiburu hori egia bihurtu dadin, bereziki pentsatu behar dugu jada atzean zeuden pertsonengan, zeren krisi sanitario hau lehenago ere bazeuden desberdintasunetan sakontzen ari baita. Adibidez, lau pertsonako familia bat kide guztiak langabezian dituenak edo soldata bakarra daukanak 120 eurora bitarteko gastua izan dezake hilean maskaratan bai ala bai, eta horri gehi-

tzen badizkiogu alokairua, janaria, energia, telefonoa edo, esaterako, eskolako materiala, haren oinarriko baliabideak ukitzen ari gara inondik ere. Gainera, kalera irteteko maskara nahitaez eramatera behartzeak orobat eragiten dio pertsonen mugitzeko duten eskubideari; hortaz, edozein modutan, okerren pasatzen ari diren eta kalera ogi bila ateratzeko premia handiagoa duten familien kaltetan da.

Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisialdian, maskararen erabilerarekin lotutako prebentzio neurriak hartu zituen Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak babes- eta prebentzio-neurri osagarri gisa ezartzen du bide publikoan eta kanpoko eremuetan maskarak erabiltzea (arrazoizko salbuespenak salbuespen), urruntze fisikoaz gain, gaixotasuna kutsatzeko aukerak minimizatzen. Eta hirugarren puntuan jasotzen

duenez, babes-materiala lortzea erraztuko zaie kolektibo ahulenei.

Gainera, 2020-2021 ikasturtearen ia hasieran gauden honetan, Nafarroako Gobernuak prestatu duen Prebentzioko eta Hezkuntza Jarduera Antolatzeke Protokoloak besteak beste jasotzen du ikasleek, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik goiti, maskara eraman beharko dutela ikasgela barruan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroan egoera ekonomiko ahulean bizi diren pertsonen berma diezaion foru erkidegoan behar adina maskara izanen dutela, osasun-segurtasuneko neurriak betetzeko eta kutsatzeko arriskua minimizatzen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari exigi diezaion AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independententak 2020rako eta 2021erako baimentzen dion gehieneko defizit-mugara iritsi ahal izatea.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Espainiako Gobernuari exigi diezaion AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independententak 2020rako eta 2021erako baimentzen dion gehieneko defizit-mugara iritsi ahal izatea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Aurtengo martxoaz geroztik Espainian eta Nafarroan pairatzen ari garen osasun-krisia krisi ekonomiko larri bat eragiten ari da, eta horrek berekin ekarriko du zenbait gairekin lotutako gastuak handitzea eta diru-sarreretan izugarriko jaitziera izatea, eta, ondorioz, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorra baliorik gabe geratzea.

Egoera horren aurrean, beharrezkoa da zorpeztzeko dugun gaitasunera jotzea, Espainiako Gobernuarekin negoziatu baita, gure foru-araubidearen esparruan. Negoziazio horretan, Nafarroako Gobernuak lortu zuen akordioa % 2,3ko defizit-muga bat izan zen (lehendakariaren arabera, % 2,6raino zabaldu daitekeena), bi kasuetan AIREF-

Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek Nafarroarentzat onartutako defizit-mugaren azpitik, zeina % 2,9 eta % 3,9 arteko tartean baitago.

Hori gertatu den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoari Espainiako Gobernuak % 2,6ko defizit-muga aitortu dio, eta muga hori bat dator AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek erkidego horretarako onartutako tartearen maila gorenarekin (% 1,9 eta % 2,6 artekoa).

Gehieneko muga hori, Nafarroa zigortzen duena, beharbada ez da nahikoa izanen Foru Ogasunaren diru-sarreretan gertatu den jaitsiera ikusita, eta, murrizketez gain, lehiarako desabantaila ere ekar dezake gure erkidegoarentzat.

Horregatik, beharrezkoa da Espainiako Gobernuak Nafarroari gure erkidegoak jasan dezakeen defizit-muga handiena aitortzea, eta, ondoren, Nafarroako Gobernuak tarte horren barruan behar dena erabiltzea, aurrean dugun krisi ekonomiko eta sozial honi aurre egin ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du Espainiako Gobernuari exigi diezaion AIREF-Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek 2020rako eta 2021erako baimentzen dion gehieneko defizit-mugara iritsi ahal izatea.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiaz du garapen digitalerako estrategia bat defini dezan.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiaz du garapen digitalerako estrategia bat defini dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du,

2020ko irailaren 17ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

2020ko uztailearen 21ean, EBko liderrek akordio bat lortu zuten berreskuratze-plan gisa eta 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparru gisa, estatu kideak eta, bereziki, zigor gogorrenak jaso zituzten herrialdeak berreskuratzen lan egiteko. Aurkeztutako proposamena ekintza bikoitzean oinarritzen da, epe luzerako aurrekontu indartuarekin, 2021-2027 aldirako 1,1 bilioi euroraino iritsiko dena, eta Next Generation Europe planarekin, 2021-2024 aldirako 750.000 milioi euro izanen dituen.

Ekimen hori gehituta, uztailearen 23an Espainiako Gobernuari lehendakariak Espainia Digitala 2025 Plana aurkeztu zuen, zeinean aldi horretarako inbertsio publikoko ahalegin bat aurreikusten baita.

Next Generation Europe planari dagokionez, testuak berak "trantsizio ekologiko eta digital bikoitza bizkortzea" aipatzen du, eta, beraz, trantsizio ekologikoa eta digitalizazioa dira Nafarroaren hazkunde iraunkorra eta modernizazioa bultzatzeko hurrengo hiru urteetan inbertitu behar den oinarriko zutabeak.

Beraz, digitalizazioaren oinarriko zutabea funtsezkoa eta kritikoa da, eta Nafarroako Foru Erki-degoa aitzindaria da IKTen esparru publikoan eta pribatuan, baina oraindik ibilbide luzea du bilakae-ra teknologikoan eta, beraz, modernizazioan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du defini dezan garapen digitale-rako estrategia bat, administrazioa digitalizatzeko ekintzak bildu eta koordinatuko dituen, ekintzen

garapenean ahalik eta eraginkortasun handiena lortzen saiatzeko, eta Europatik babes ekonomiko handiena izan dezan Nafarroa osoaren –eta, zehazki, nafarren, haien enpresen, entitateen eta gainerako erakundeen– eguneratze teknologiko-an.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Uraba-yen

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere ekarpe-na berrikus dezan haur eskolen jabe diren udalekiko lankidetzaren hitzarmenetan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen bere ekarpena berrikus zezan haur eskolen jabe diren udalekiko lankide-

tza hitzarmenetan, eta 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, militarrek kontaktuen miaketa-lana egiteko eskariari buruzkoa.**BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, militarrek kontaktuen miaketa-lana egiteko eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehen-dakari María Chivite Navascuésék Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Galdera heldu den irailaren 16rako deituta dagoen Foru Araubideko Batzordearen bilkuran egin ahal izatea eskatzen dut.

Ikusita Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatu diola militarrek erabili ahal izatea COVID-19az kutsatutako pertsonen kontaktuen miaketa-lanak egiteko, honako hau jakin nahi dut:

Zergatik eskatu zaio Espainiako Gobernuari militarrek Nafarroan kontaktuen miaketa-lana egin dezaten?

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso